

Euskara eta andreak ardatz

Euskarazko fikzioaz sarrago idazteko eskatu zidaten aurrekoan. Aitortu behar dut hizkuntza horretan ikus-entzunezko gutxiago ikusten ditudala. Neurri handi batean, ez dudalako oso argi non ikus ditzakedan ekoizten diren lan digital berri guztiak. Alde batetik, apenas dago euskarazko fikziozko eskaintzarik pantaila tradizionalan. Eta, bestetik,

ez dut telebista tradizionalik etxean. Beraz, streaming plataformak erabiltzen ditut fikzioa kontsumitzeko. Horieta batak ordainpekoak dira, eta beste batzuk doakoak. Netflix, Filmin eta Movistar, alde batetik; eta irekian ikus daitezkeen telebista kateen nahierako zerbitzuak, bestetik. Imajinatzen dut zuetako askok, jada, gauza bera egingo duzuela. Horregatik, euskarazko

ikus-entzunezkoak biltzen dituen streaming plataformak baten beharrean gaudela esango nuke.

Maddi Castro zinemagilearen *Pikuak* euskarazko websaila ikusteko gogo piztu zitzaidan astelehenean. Igande gauerdian estreinatu zuen EITBk bere webgunean. Interneteko bilatzaileen *Pikuak* sartu nuen, eta, nire harri durarako, EITBren *Serie digitalak* atalera heldu nintzen.



+
EKOGRAFIAK
Miren Manias

Agenda

Noiztik dago hori martxan? Zerbait dago atal horren berri? Zehatzago: zenbat sustatu dute tresna gure irratietan, euskal prentsan, sare sozialetan edota ETBn bertan? Euskarazko lau lan daude: *Gutuberrak*, *Puntu koma*, *Kartzela* eta *Pikuak*.

«Ez dakit loraldi bat den, baina denok kontsumitzen ditugu telesail pila bat, eta ari gara ikusten imajinatzen ez genituen rolak edo pertsonaiak, eta *Pikuak*-ek badu hori», adierazi du berriki Castrok ETBeko *Berben lapikoa*-n. Hiru emakume gazte dira websail horren protagonistak (Miren Nogales, Ainhoa Artetxe eta Amaia Ruiz de Galarreta), eta haien hel-

buruak edo ametsak lortzeko boroa kontaktzen du. Pisuakideak dira, eta elkar oso ondo osatzen dute. Hau da, bataren gabeziak besteak betetzen ditu. Pertsonaiak sortzeko orduan, estereotipoetara jo dute. Bata lesbiana da, bigarrena belarzailea, eta hirugarrena ingurune urbanoko hipster. Bestela esanda, pertsonaiak oso garaikoak dira; izan ere, errealitate gertu daude.

Gustura ikusi ditut lehendabiziko hiru atalak –hamar minutu ingurukoa bakoitza–, eta lantaldea eta bultzatzaileak zoriondu nahi nituzke emaitzagatik. Baita euskara eta emakumeak ardatz izan dituztelako ere.

«Zigilu pertsonala duten telesailak bilatzen dira»

Natxo Lopez • Gidoilari

Lopezek 'Perdida' telesaila sortu zuen Antena3 katearentzat. Irekian oharkabean pasatu zen, baina Netflixen arrakasta handia izaten ari da Latinoamerikako herrialde askotan.

Urtzi Urkizu

Natxo Lopez Iruñean hazi zen (Madril, 1976), eta iruindartat du bere burua. Etxeko ordenagailuan lan egitera ohituta dago, eta konfinamenduak ez dio asko aldatu egunerokotasuna. «Hilabeteotan inoiz baino gehiago lan egin dut». Bihar Conecta Fiction Reboot topaketan parte hartuko du, «fikzioaren ahots berriei» buruzko solasaldi batean.

Nola sortu zen *Perdida* telesaila egiteko ideia?

Antena3ek telesail bat egin nahi zuen desageritutako haurrekin lotutakoak. Big Bang Media ekoiztetxeak ideia bat aurkeztu zuen, baina Antena3ek beste buelta bat eman nahi zion, eta beste bide batzuk esploratu. Orduan deitu ninduten telesaila sortzeko; neska baten desagerepenetik abiatu behar zen istorioa. Aurreneko bost atalak idatzi nituen, eta konbentzitu gelditu ziren.

Istorioa Valentzian (Herrialde Katalanak) eta Kolonbian garatzen da. Nolako izan zen Kolonbian lan egitea?

Gidoiaren idazketan Kolonbiari buruz ikertzen aritu nintzen: nolako den herrialdea, nolakoak hanga espetxeak... Bestetik, mundu osoan ulertuko zen istorio bat sortu nahi genuen. Ekoizpena osorik Espainiakoa da, nahiz eta Kolonbiako profesionalak parte hartu duten: produkzio talde bat eta hainbat aktore Kolonbian kontratatu ziren. Oso ondo egin genuen han lan; profesional bikainak daude Kolonbian. Azkenaldian AEBetako fikzio asko ere egin dira Kolonbian; ikasketa prozesu bat izan dute.

Antena3en *Perdida*-k ikusle datu apalak izan zituen. Nolatan ari da lortzen Netflixen halako arrakasta?

Antena3en ematen hasi zirenean, bagenekien Netflixek eresia zuela. Nahiko lasai geunden, bagene-



BERRIA

kielako telesailak beste bizitza bat izango zuela. Narratiboki nolako den jakinda, plataforman ondo funtzionatu zezakeela pentsatzen genuen. Fikzioak gero eta okerrago funtzionatzen du doako telebistetan. Antena3en telesailak ez zuten promozio handia izan, eta parean *La isla de las tentaciones* saioaren fenomenoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, astero milioi bat ikus-entzule genituen Antena3en. Orain, Netflixen egonda, Latinoamerikan sekulako tiradiazioa izaten ari da, apenas promoziorik gabe. Oso pozik gaude.

Zer herrialdeetan ari da hobekien funtzionatzen?

Kolonbian bertan, Argentinan, Mexikon, Txilen, Panaman eta Uruguain. Horietan gehien ikusitako hamarren zerrandana dago. Portugalen eta Espainian ere bikain dabil. Ingeleseko bikoizketak egiten dituztenean, mundu osora zabalduko da.

Horrek ateak irekiko al dizkizue bigarren denboraldia garatzeko?

Denbora bat pasatuko da hori jakiten den arte. Baina aurrekontu txikia da, eta ondo luzitzen du. Netflixen gisako plataformak barentzat erakargarria da hori. Badakigu bigarreneko aukera egon daitekeela, eta nik gidoilari gisa badakit istorioa nondik nora joango litzatekeen.

Conecta Fiction Reboot Interneteko topaketan parte hartuko duzu. Zer hausnarketa egiten duzu fikziozko koprodukzioen inguruan?

Oso garai polita da koprodukzioentzat. Duela gutxi arte, Espainiak telesailak ez ziren atzerrira zabaltzen. Gaur egun, berri, edozein proiekturen sorreran pentsatzen da kanpoan ere saldu ahalko dela. Plataformek ekarri dute hori, konturatu baitira Espainiak edukia ondo saltzen

direla beste herrialde batzuetan. *La casa de papel* katalizatzailea izan da. Horrek guztiak ekartzen du produktu interesgarriagoak egin ahal izatea narratiboki ere.

Europar gidoilari kasu gehiago egiten zaie orain garai batean baino?

Bai; duela hogeit urte, hasi nintzenean, proiektu bat aurkezten zenean telebista katea batean, ez ziren gidoilariak joaten, ekoizleak baizik. Berdin zuen nork idatzi zuen. Orain edozein plataformak galdetzen du proiektua nork idatzi duen. Funtsezko galdera da. Zigilu pertsonala duten telesailak bilatzen dira. Hori lortzen da indarra eta aitortza sortzaileari ematen, proiektu pertsonalak egin ditzan, ahots propioarekin. Hori lortzen ari da gidoilari esker, baita gidoilariaren sindikatuei esker ere. Oso lan garrantzitsua egiten da Espainiak gidoilariaren sindikatuan. Egoera hobetu egin da.